

Donostia, 2016ko urriaren 21ean

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### SALVADOR ALLENDE PARKEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordean hilabete honetan egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Hil honetako Batzordean azaldu genuen moduan, Bidebieta auzoan bada Salvador Allende politikari txiletarrari eskainitako parke zabal bat. Inguru horretako bizilagunak joaten dira parkera, horietako asko zakurrekin, eremu zabala eta apartatua delako eta animaliei beran kasa ibiltzeko aukera ematen dielako. Politikari txiletarraren omenezko plaka bat zegoen bertan. Zoritxarrez, plaka hori desagertu egin zen duela urtebete gutxienez, irailaren 11n Salvador Allenderen heriotzaren urteurrenean memoriaren aldeko elkarte batzuek omenaldi bat egin ziotenean.

Ez da beharrezkoa gogoratzea nolako garrantzia duen politikari txiletar honek munduko demokraziarentzat: sozialismorako bide txiletar ezagunaren aitzindari, munduko ezkerrentzat erreferentzia eta gure hirian bere izena daraman parkeari esker gogoratu.

Aurten ere egin da omenaldi hori, eta egiaztatu ahal izan denez, oraindik ez da berrezarri politikari txiletarraren omenezko plaka hori. Horrexegatik, gure iritziz garrantzitsua da oroitzapen hori bizirik mantentzea.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udal Batzarrak Gobernu Taldeari eskatzen dio berrezarri dezala Salvador Allenderen omenezko plaka Bidebietako auzoan bere izena daraman parkean.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.